

Nati Arrieta Larrañaga

*Bergara
Gipuzkoa (1940)*

Aurkibidea

Biografia



Angiozar auzoan jaio zen 1940an. Euren etxeari "Errementarikua" deitzen zioten, aita errementaria zelako. 6 anai-arrebatatik azken aurrekoa da bera. Angiozarren bertan ibili zen eskolan eta 13 urterekin Arrasatera joan zen neskame. Bertan egon zen ezkondu artean. Ezkondu zenean senarraren baserrira joan zen bizitzera Elgetara.

Zintak

BER-312

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2008-04-15
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

BER-313

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2008-04-15
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Aita perratzailea

- **Erref:** BER-312/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gazte-denboran Errementarikua etxean bizi izan zen. Aita perratzailea zen. Hankak bigunak izaten dituzte zenbait aberek eta haiei hanka azpia sendatu eta perra jartzen zitzairen. Probarako ganaduentzat perra bereziak egiten zituen aitak.

Transkripzioa

-Denbora asko bizi izan zifien han edo...?

-Bai, bueno bai. Hona etorri nitzan hamazortzi urtekin edo hola. Hamazortzi urte.

-Orduan txikitan eta gazte izan arte baserrixan bizi izan zara.

- Bai bai,

-Eta animalixak-eta bazekazuen?

-Animalixak beti, etxeko animalixak. Ta gero aitta perratzaillia zanetik beti animalixak gurian. Perratzaillia, ez dakit badakizun, badakizu zer dan?

- Ez.

- Ba ganauaei ipintzen jakue hanketak perrak. Batzuk izaten dia hanketan zera eittekuak, jartzekuak (...). Eta hori perratzaillia, nere aitta zan perratzaillia. Eta hanketan ipintzen jakuez perrak: astuai, kaballuai, behixai, idixak...

-Zetarako ipintzen da?

-Ba proban eitten dabenak be perrak bihar izaten dittue. Harei eitten zotsan gure aittak pixkat espezialtxuak berak eitten zotsan, zer batzuk, segun zela bihar daben. Porke hanka batzuk eukitten dittue bigunak, hurrengo ebaixa be eitten jakue, eta kurau ta perria ipintzen zotsen, eta

kaballuak eukitten dabe ba perria, ezagutuko dozu zuk "la herradura tal" eta ganauak diferentie eukitten dabe.

2. Perratzailearen lanak

- **Erref:** BER-312/006
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Aita Angiozarko perratzailea zen. Garai hartan ganadu asko zegoen inguruetan. Oinez edo bizikletan joaten zen baserrietara. Etxean bertan zuen perratokia. Ganadua nola jasotzen zuten perratzeke. Apatxak zaindu, zauriren bat bazuten sendatu eta perra jartzen zen. Perra nola jartzen zen. Perrak Mutrikutik ekartzen zizkioten eta "untzak" (iltzeak) Tolosatik. Aramaion ikasi zuen aitak perratzaile lanbidea.

3. Aita dultzaina jotzen herrietako jaietan

- **Erref:** BER-312/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aita perratzailea izateaz gain, dultzaineroa ere bazen. Arrasatera joaten ziren jotzera San Juanetan beste arrasatear batekin eta Oñatiko danbor-jotzailearekin. Bergaran eta Angiozarren ere jotzen zuten jaietan. Egurrezko dultzaina zuen aitak.

4. Dultzaineroen entseguak Errementarikoan

- **Erref:** BER-312/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aitak eta beste bi lagunek euren etxean entseatzen zuten jaietara dultzaina jotzera joateko. Normalean buruhandiekin jotzen zituzten kalejirak.

5. Aita oso musikazalea

- **Erref:** BER-312/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:14:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aita oso musikazalea zen. Angiozarko koroan ere abesten zuen. Berak beti ezagutu izan du aita dultzaina jotzen eta ez daki nola ikasi zuen.

6. Txerria hiltzen zuten etxerako

- **Erref:** BER-312/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Amak etxeko lanak eta baratzekoak egin behar izaten zituen. Txerria hiltzen zuten etxerako eta txorizoak eta urdaiazpikoa gatzetan eduki ostean zintzilik jartzen zituzten. 13 urterekin Arrasatera joan zen neskame eta gero ahizparen tabernara ere joaten zen laguntzera.</p>

7. Txorizoak egiteko prozesua

- **Erref:** BER-312/011
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txorizoak egiten ibilia da; prozesu osoa azaltzen du. Lehenbizi txerri okelarekin masa egin eta hesteetan sartu makinarekin. Hesteak erosi egiten ziren. Leku lehor eta freskoan esekita edukitzen ziren azala egin bitartean eta, ondoren, hobeto kontserbatzeko, oliotan gordetzen ziren. Lehen ez zegoen hozkailurik eta "freskeria" deitzen zioten armairu antzekoa zuten.

8. Ogia eta esnea inguruko baserri batetik

- **Erref:** BER-312/012
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ogirik ez zuten egiten etxean. Angiozarrera kanpotik ekartzen zuten ogia,

baina inguruko baserri askotan egiten zen ogia orduan. Esnea etxez etxe banatzen zen. Eurenera inguruko baserri batetik ekartzen zituzten ogia eta esnea. Hango baserrikoak zapi zuri bat jartzen zuen teilatuan seinaleztat, labeko sua egina zuela eurei adierazteko.

9. Arropa ontzikada buru gainean

- **Erref:** BER-312/013
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arropak garbitzera erredera joaten ziren. Harri gainean arropak xaboitu eta belar gainean eguzkitan jartzen zituzten, mantxak kentzeko. Trapu bat bihurritu ("sorkixa") eta buru gainean jartzen zuen amak haren gainean ontzikada arropa eramateko.

10. Umetako jolasak: "txantxirrika", harrapatzen, pilotan...

- **Erref:** BER-312/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan "txantxirrika" jolasten zuten, lurrean marrazkia eginda laukietan saltoka. Bestelako jolasak: pilotan, harrapatzen... Elizpean jolasten zuten asko. Harrapatzen nola egiten zuten. Pilotak beraiek egiten zituzten. Aitak beste jolas bat ere egiten zien, burnizko aro bat ekilibrioa mentenduz eraman behar zena.

11. Garia tresnak zorroztearen truk

- **Erref:** BER-312/015
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Aitak inguruko baserrietako tresnak zorrozten zituen. Trukean, baserritarrek gariarekin ordaintzen zioten. Gari hori gauza askotarako aprobetxatzen zuten: errotara eraman eta ateratako irina eurei ogia egiten zienari eramaten zioten; ahia egiten zuten etxean; irina galbahean pasa ostean geratutako zahia txerriari ematen zioten.

12. Txerriarentzat pagotxa

- **Erref:** BER-312/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxe ondoan baratzea eta soroa zituzten. Soroan artoa eta patata izaten zituzten, baina baita txerriarentzat erremolatxa eta "pagotxa" (pagotxa) ere. Pagotxa nolakoa izaten den azaltzen du. Txerria askatu eta hara joaten zen jatera. Txerria zaintzen zuten bitartean dotrina ikasten zuten.

13. Angiozarko eskola; eskola utzi eta neskame Arrasatera

- **Erref:** BER-312/017
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Dotrina ikastera abadearengana joaten ziren. Irakasle bakarra izaten zuten denentzat. Irakasle batek berak ikasketak Bergaran jarraitzea proposatu zion amari, baina orduan ezinezkoa zen hori. 13 urterekin neskame joan zen Arrasatera; hango bizipenak. Etxean euskaraz egiten zuten arren, eskolan gaztelaniaz ikasi zuten dena. Irakasleak.

14. Euskaraz abesteko Guardia Zibilen beldur

- **Erref:** BER-312/018
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Etxean euskaraz kantatzen zuten, baina beldurrez ibiltzen ziren. Aitaren arreba etortzen zenean, euskaraz abestea nahi izaten zuen, baina etxe inguruko zubira begiratzen zuten lehenbizi, Guardia Zibilen beldur.

15. Aita kartzelan gerra denboran

- **Erref:** BER-312/019
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra denboran, aita kartzelan egon zen Donostian. Ama Alonso Vega jeneralarengana joan omen zen Bergarara arrazoiak jakitera eta, itxuraz, euskalduna izatearren atxilotu zuten. Presoak fusilatu egiten zituzten eta bere aita ere ozta-ozta libratu zen. Etxea eta terrenoak eurenak ziren, baina bizitzeko lain zuten bakarrik; eta, pixka bat hazitakoan, lanera joan behar izan zuten denek. Aita ez zen politikan sartzen.

16. Aita kartzelan zegoela botu eske

- **Erref:** BER-312/021
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita kartzelan zegoela, amari boto eske joan zitzaizkion, baina berak ez zion inori botorik eman. Aitak baino, amak gehiago kontatzen zituen aita preso egon zeneko kontuak.

17. Arrasaten neskame

- **Erref:** BER-312/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Hamahiru urterekin Arrasatera joan zen neskame. Ordurako bazekien etxeko lanak egiten, ahizpak nagusitu ahala etxetik joaten zirelako. Arrasateko etxeko nagusiek tela-denda zuten eta batzuetan dendara ere joaten zen laguntzera.</p>

Transkripzioa

- Etxeko lanak ittera, bai.
- Ta ya bazekizun zelan ein? Etxian ikasi zenduan?
- Honbre, ba etxian beti itten ziñuan. Etxian beti itten ziñuan, porke zaharrauak, ba, edadia zakenian, ba, urten in bihar zian etxetik. Etxian ezin zeikien e... han zertu ta. Eta, ba, zaharrauak zelan fan zian etxetik, ba, gero geratzen ziñan zeu eta geratzen zanak in bihar izaten zeban, ba, etxeko lanak. Eta modu hortan. Porke erropak garbitzeko be, ba, eskuakin eta jaboi takuakin ta [en fin, hola]. Arrasaten, ba, harek erak hobeto zaozen, klaro! Ni oso ondo eon nitzan e, Arrasaten. Oso-oso-oso ondo. Oso ondo, bai.
- Dendan bebai in bihar zenduan zeoze?
- Dendara iñoiz bajatzen nitzan eta... Beran pixuan behian zaken dendia, ta bueno, erekin egoten nitzan han, ba, kajan batzuk zabaldu eta kajak edo kartoiak doblau ta zertu ta ba holaxe. Bai, tela dendia zaken; telak eta

erropak eta, holan, kamisetak eta holan. Eta, bai, oso ondo eon nitzan e! Ni han oso ondo konsiderauta. Klaro, ume bat nitzan ta, ume bat. Ta harek, ba, erak... bai. Ta gero neu hantxe nenguala, erak be nausitxuak zian eta saltzeko bidia euki zeбен. Bai. Ta hoixe, gure unibersidadia hoixe, kriada.

18. Senarraren baserrira joan zeneko kontuak

- **Erref:** BER-312/024
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Senarraren baserrian ganadua zuten eta esnea saltzen zieten bezeroei. Berak ez zekien baserriko kontu askorik hara joan zenean, baratzeko kontuak bakarrik.

19. San Migeletan jazbana eta karameleroa

- **Erref:** BER-312/025
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Angiozarren San Migelak ospatzen ziren. Bere aitak dultzaina jotzen zuen, baina beste jazban bat ere egoten zen: herriko soinu-jotzailea, bateria eta saxofoia. Plazako "kargaderoan" jotzen zuten musikariek. Karameleroa ere etortzen zen Bergaratik jaietan. Karburarekin argi eginda egoten zen karameleroa. Behin erlojuak lapurtu zizkioten karameleroari. Horren inguruko pasadizoa.

20. Domeketan lagunekin; mutilekin dantzarik ere ez

- **Erref:** BER-312/026
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Arrasaten neskame egon zenean ere irteten zen lagunekin edo bertan zituen lehengusinekin. Plazara joaten ziren, musika egoten zen eta. Mutilekin

zirelako eskopetak probatzera eta kuarterera joan zen batean erakutsi zioten bere anaiaren fitxa.</p>

Transkripzioa

- Koko jantzitta ta, hori hainbeste be ez, porke orduan hori debekauta egon zan. Han, ni akordatzen naiz, gabe baten afarixa in nere anaiak eta, eta, zera, filarmonikia... han bertako... bertan hazittako bat, eta etorri zan filarmonikiakin. eta ez dakit zelako bersuak kantau zittuela eta kuarterera eruan zittuen, kantau zebelako gabian! Bai! Ta hantxe geratu zan fitxia e! porke ni juan nitzanian... etara neban zera, pasaportia. Eta etara bihar zan "buena conducta" edo "no sé qué" handik, kuarteletik. Eta nik Guardia Zibilak ezautu itten nittuan hangrak, porke ni tabernan nenguala etortzen zian harek Elgetara, Zabalanera, eskopetak probau bihar zittuenian, Guardia Zibilak etortzen zian. Eta etortzen da sargentua eta... Eta nik ezautu itten nittuan harek, oseake ni kuarterera juan nintzan, ezta? baiña frankil, porke harek ezautzen nittuan nik eta. Juan nitzan ta esan ostan: "Tu ya le conoces a este?", erakusten dosta nere anaia, "Sí, ¿qué le ha pasau?". Bah antxe geratu jakon fitxia. Kuarterera eruan zittuen eta fitxia hantxe zakan, eta simplemente gabian kantuan in zebelako, bersuak edo ez dakit ze. Oseake, hain zeuan dana bajo... ez zauan ezetarako...ez zotsuen lagatzen ezebez. Ta euskeraz-ta kantatzen baziñuan, gaiñera, ni te cuento! -Txibatuak bazeuazen herrixan?

-Bai, bai.

-Ezagunak edo...?

-Bai, ezaunak izango zian, porke herri txiki baten danak ezautzen dia eta nundik kojeatzen daben be bai, euskeraz itten bozu erderaz itten bozu, etxian ze ambiente daken, zelan datorren atzetik datorrena be... ba bai. Angiozarren ta holako herri txikittan danak ezautzen dozuz. Eta, ba, baten batek sartu zotsen txibatazua, bai. Nere anaia ta kuadrillia! Harek han egon zian. Kuarterera eruan zittuen, euskeraz kantau zebela bersuak edo ez dakit zer, ta auskalo! erak pentsautako berson batzuk igual izango zian, baiña haren fitxia hantxe geratu zan.

24. Emakumeak tabernan sartzea gaizki ikusita

- **Erref:** BER-312/032
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Angiozarren Elizamendiko jaietan anaiak taberna jarri zuen behin eta hari laguntzen ibili zen eta gero ahizpari ere laguntzen zion tabernan. Ez zegoen ondo ikusita emakumeak tabernan sartzea.

Transkripzioa

-Tabernan lan in baiño lehenau sekula egon ziñan lehenau tabernaren baten-edo, egoten ziñen?

-Tabernan egon ez. Bueno, herrixan, hor herrixan, hor zera Angiozarren zeuan Elizamendi, dao, ermitta bat, han eitten zian jaixak, Pazkua izaten zan ta hango han ipintzen zan tabernia, baten batzuk, ta nere anaiak behin ipiñi zeban ta behin berai laguntzen eta holan bai baiña bestelan hola ez,

tabernan ez. Ya hemen urte mordua ein nitzuan ta gero ezkondu ta gero ere faten nitzan laguntzera-eta, asko.

-Baiña jentia juten zan gizona gehixau igual.

-Tabernetara? Hoixe! Gu geu tabernan akostunbrauta ta igual faten giñan norabait eta sartzen giñan tabernara ezta? Baina, ez zeuan ondo ikusitta orduan, tabernara fatia-eta ez zeuan ondo ikusitta. Igual zu juaten baziñan Bergarara-edo, tabernara ez ziñan faten igual, igual faten ziñan pastelerixara. Ta ba pastelerixan igual pastelak edo txokolatie-edo igual jaten ziñuan eta hola, hola izaten zan. Tabernetan ba oingo moduen emakume bat bakarrik igual ba ez orduan gutxi.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com